

LEKEITIO ETA INGURUKO EMAKUME SORTZAILE ETA EKINTZAILEEN III. AZOKAN PARTEHARTZEKO OINARRIAK

Oinarri hauek Lekeitioko Udalak, Lea Artibai Garapen Agentziarekin elkarlanean, antolatzen duen *“Lekeitio eta inguruko Emakume sortzaile eta ekintzaileen azoka”*n partehartzeko araudia onesten dute. Azoka honek, emakumeek egiten duten lana ikustarazi eta honi presentzia eta indarra ematea du helburu.

I. KOKAPENA

Lekeitioko plazan izango da azoka, eta gehienez 12 saltoki jarriko dira. Eguraldi ona badago, plazan bertan izango da eta euria edota haizea iragarrita badago, printzipioz, Kontzijoan izango da, Udaletxe azpian.

II. AZOKA EGUNA

2019ko **martxoaren 3an** ospatuko da azoka, martxoaren 8 dela eta, hau da, emakume langilearen Nazioarteko egunaren harira.

Salmentarako ordutegia **12:00etatik 15:00etara** izango da.

III. ESKAINIKO DIREN BALIABIDEAK

- Partehartzaile bakoitzeko gehienez bi mahai eta 4 aulki utziko dira. Mahaiak tolesgarriak dira eta bere neurriak 183 x 75 x 74 dira.
- Azoka hasi baino arinago, partehartzaileek euren materiala plazan deskargatu ahal izateko autoarekin plazara sartzeko udal baimena.
- Azokan salmenta egiteko udal baimena.

IV. AGIRIAK, BETE BEHARREKO BALDINTZAK ETA PROZEDURA

- **Agiriak:**

Agiri hauek erantsi beharko zaizkio eskaera orriari:

- **Eskabide-orria, eredu ofizialean.** Aitorpena oso-osorik bete beharko da: eskatutako datu guztiak adierazi ezean, eskabidea ezetsi ahalko da.
- **Eskatzailearen nortasun agiriaren fotokopia.**
- Eskatzailearen **erroldatze** ziurtagiria.
- Eskatzailea **Jarduera Ekonomikoetan alta emanda** dagoela egiaztatzen duen **agiri ofizial eguneratuaren fotokopia**, azokan merkaturatzen dituen produktuetako edozeini dagokion kategorian.

- Merkaturatuko diren produktuen **deskribapena**, haiek egiteko erabili diren material edo lehengaiak, jarduera berritzailea izatea puntuagarria izango dela kontuan izanda, **jardueraren ezaugarriak** adierazi.
- **Produktuen argazkiak.**
- **Bete beharreko baldintzak:**
 - Emakume izatea
 - Jarduera Ekonomikoetan alta emanda egotea.
 - Partehartzaile bakoitzak eskaera bakarra aurkeztu ahal izango du
 - 18 urtekoa edo 18 urtetik gorakoa izatea
 - Sorkuntza eta ekintzaitzaren ondorio diren produktuak eskaintzea.
- **Prozedura**

JATORRIA	
Lekeitiarra	5 puntu
Lea Artibaiko eskualdekoa	4 puntu
Bizkaitarra	3 puntu
Euskal Herrikoa	2 puntu
Beste jatorriren batekoa	1 puntu
Jarduera berritzailea izatea (teknologi berriekin egindako produktuak, jarduera tradizionalatik haratagoko produktuak eskeintzea,...)	3 puntu
Arreta euskaraz izateko aukera ematea bezeroari.	5 puntu
Jardunak Lekeition izatea egoitza (saltokia,...).	5 puntu

Puntu gehien lortu dituzten 12 eskatzaile aukeratuko dira baina erreserbarako beste 5 geratuko dira, azken momentuko egoeraren batengatik aukeratutako izan direnen bat ordezteko.

V. PARTE HARTZEKO ESKABIDEAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA

Lekeitioko Udaleko **harreran** (Gamarra Kalea, 1) edo **emailez** (lekeitioberdintasuna@gmail.com) aurkeztu behar dira eskabideak. Emailez aurkeztuz gero, eskabidea jaso dela konfirmatzeko 662429368 telefonora deitu ahalko da.

Eskabideak 2019ko **otsailaren 5eko 14:00ak arte** jasoko dira. Printzipioz, ez da partehartze eskabiderik onartuko deialdi honetan ezarritako epe ofizialetik kanpo. Bakarrik deialdi honetan ezarritako epe ofiziala amaitzean saltokien kopurua baino eskabide gutxiago jaso badira onartu ahal izango da epea gainditu ostean aurkeztutako eskabideak.

Esan bezala, guztira 12 saltoki izango dira. Horietatik 1 Udalak emakumeei zuzendutako gizarteratze-enpresentzako eta/edo bidezko merkataritzarako erreserbatu dezake. Saltoki hori ez bada betetzen, hau gainerako eskatzaileen artean banatuko da.